

JOKIN ZAITEGIRI BURUZKO LIBURUAREN AURKEZPENEAN

Arrasate, 1981-XII-30

Leizaola'tar Josu M.^a

Adiskideak,

Arrasate'ko seme eta euskalzale gorengo izan zan Zaitegi'tar Jokin'eri eskeintzen diyozen omenaldi ontan nik ere zerbait estea nai izan dezute eratzailleak. Zaitegi'rekin nik izandako artu-emanak adieraztera etorri naiz, ba, zuengana.

Artu-eman oyek etziran gaztetasunean sortu. Ura ni baño gazteago izanik —amar urtez— eta ni Arrasate ontatik ain urruti jayoa eta lanean ariya naizen ezkeru, bata ta bestea oso berandu ezagutu izan giñan.

Besterik gabe, aren euskerak eta nereak ezagun-arazten dute urrutixamarreko iturritik etorriyak giñala. Biyoen euskerazko lanak ere bertantxetik adierazten dute ori.

Arenak, helendarrak egindako idazlanetatik artze izate zituzten sortzea: Sopol, Platon eta Euripide'renak itzuli edo aurkeztutzea izan zuten gaitzat, bereziki.

Nik gain oyetara iyotzea ez nezakedan, iñoiz gerkera ikasteko bide eta astirik izan ez detalako, alegia. Egunero ibiltzen genitun izkerekkin nahiko eta geyegi neuzkan alako lan zailtan sartu gabe.

Danetara, alkarren artean zubi bezela Orixe sortu zan Guatemala'n, 1950'garren urtean.

Berau, nora jua billa ari, eta Amerika-aldera atera zan. An, batetik bestera zebilela (Ecuador'en batez ere) Zaitegi'rengana jo zuan eta bai benetako laguntza Jokin'ekin lortu.

Zuen erritar au iruditzen zait izan zala bere bizitza osoan arkitutako laguntzallerik atsegiñena Orixe'rentzat. Lau urte egin zituzten alkarrekin. Orixe'ren lanetatik ateratzen detana ere ori da, Zaitegi'k ama batek bezala zaritu zuala nere adiskide ain aundi zan beste ura.

1950'g. urteko *EUZKO-GOGO*A-ren ale bat daukat aurrean lerro auek idazten ari naizenean. Baita ere aldizkari orrentzat zerbait eskatzen didan idazki bat. Oyekin asi ziran andik aurrerako Zaitegi eta nere artean artu-emanak.

Baiona-aldean nengoan eta bi euskalzale ayek Guatemala'n. Nezakedan ezer gutxi'renbat bialdu niyen. Berak neri askoz geyago: *EUZKO-GOGO*A zintzo-zintzo eltzen zitzaidan-eta. ¡Oso-osoan euskeraz egindako aldizkari bat Guatemala'tik! Gauza arriyagorik ezin asma.

Esan dezadan, gañera, onelako iraute-eraginkor ziyorik etzala orduan ametsetan ere agertzen inñundik. Zaitegi, beste Olabide bat iruditzen zitzaidan. Azken onek ere, beste izkeretan egindako lan sakonenak euskeraz jartzeari ekin ziyon gogor-gogor: *Kisto'ren antzbidea* (1920), *Eneko deunaren gogo-iñarkunak* (1914?), *Itun zar eta berria* (1931-1958), ogei urtez aurretik euskerara ekarri zituan. Zaitegi beste irakurgai asko euskeratzera emana zegoela ikusten nuan. Eredutzat neuzkan biyak, ba.

Gañera, era ber-berean, Zaitegi'k Euskaltzaindiaren arauetan eta euskeraren batasun bidean egindako urratsetan egiten zuan.

Oni oso-osoa lotuta gelditu nitzan.

Itsasaundiaren onuntzeko lurretan etorri zitzaigun 1955'g. urtean edo, eta Baiona-aldean bizitzen jarri, *EUZKO-GOGOA* Euskal-Erriyan egin eta iparralde ta egoaldekoetan zabaltzeko.

Urrengo urtean, Paris'en Ludi osoareko euskaldunen Batzarra gertatzen, bera "Gogo-Lantzearen saillean" eta ni "Ogasun eta Gizartearen saillean" ari izan giñan, eta zer-esanik ez dago alkarren arteko artuemanak anaitasuna aundiyeanean eraman genituela Agirre'tar Joseba-Andoni lendakariyaren mendean.

Urte ayetako *EUZKO-GOGOA*-ren aleak esaten zituenetan irakurri liteke nun eta nola ari giñan.

Nere aldetik zerbait geyago ere esan dezaket. Eta auxe da: neretzat, bai Zaitegi, baita Orixe, Olabide, orduan euskal-gayetan ari ziranak irakasle antzean artu izan nituan beti. Ni, nere burua, ikasle bezela, berriz.

Aldizkari eta egunerokoetara orduan bialdu nituan lanak, orain berriro atera eta gutun lodi batzuetan aterako diranak ere, irakurle edo ikasle batek egiten dituan oarrak bezela eman izan ditut beti.

Ez, ala ere, besteak esandakoak ezagun-arazteko bakarrik, entzundakoak edo orduan nere gogoan zeuden edo sortzen ziran jakin-nayak ezagun-arazteko baizik. Gure euskal-gurdiyari nolabait aurrera egiteko lagunduko ote ziyen ustekabenean.

Zaitegi egite oyetan eragille ta irakasle aundienekotzat neukan eta daukat oraindik ere.

Arekin izandako artuemanetan etzan beinere illuntasunik gure artean izan. Begiyen aurrean daukat au idazten nagola, ark *EUZKO-GOGOA*-n, 1957'g. urtean, aurrekoaren (beraz 1956'ko) Orrilla-Garagarrillako alea. An, bere betiko sendotasunean an jarri zuan: "... Bizantzi'ko eztabaida elkorrak eta norkeriak eztitut maite, are gutxiago ahari-talkak. Nik ere pakea laztan dut..."

Itz oyek ez zituan eskuak edo arpegiya zuritzeko jarri. *EUZKO-GOGOA*-ren ale edo ateraldi berean izakurri diteke nere lantxo batean, beste au: "Egiya esateko, sariketan garaile izateak ez du, besterik gabe, olerkariyen neurririk ematen. Auzimayetakoak ez dute beti alako astirik izaten..."

Aspaldi gure Donostiyen jartzen zituzten-y-oyek, garbi-garbi esaten eta entzuten ziran. Zaitegi'k etzizkidan kendu, ezta ere "Bizantzi'ko eztabaidarik atera". Ezta ere an bertan eta aurretik zetozten olerkietan Arrutza'ren "xoaz", "Xure"... eta x'k zuzendu: Salaberry'renetan "haurra", "Hargin", "ohartzeak"... *h* bana zutelako ai-

tzakirik jarri; edo Aldabe'renetan nerian sartutako donostiar *y ta ñ* ugariyak tinko ez utzi (onarekiñ, aiziakiñ, ... guztiyakiñ).

Gure artuemanetan gazteagoen burutapenak baztertu bear ziranen itzalik edo susmorik ere etzegoala, *EUZKO-GOGOAREN* urrango zenbakiyan (1957'g. Jorralakoan) Txillardegiren *Leturia'ren Egunkari Ezkutua* irakurri-berria zala esanaz goi-goyenean jartzen zuan Zaitegi'k.

Eta bertatik artutako iru orrialde terdi'ren aurretik au idatzi zuan *EUZKO-GOGOA*-k esana bezela: "Irakurri berria dizugu *Leturia'ren Egunkari ezkutua* deritzan eleberri gorengoa... Azalez ta mamiz orrelakorik eztugu irakurri euskeraz lenago. Edonongo elederrean pozarren atotsiko luketen eleberria, nik uste. Asikin bezela, ona emen "Negu" deritzan atalaren azken txatala, irakurlearen biotz-betegarri".

Zaitegi, bai egun ayetan (Orokor Batzarrean), bai lenagotik eta bai onuntzagoe-tan, il zan arteraño, politika-eztabaidetan etzan sartzen. Txillardegiren gatik irakur-tzen deguna egin zuan beti. Nik ez niyon iñoiz besterik entzun berari; ezta beste iñork esanda ere.

Aurrera euskerari eusteko, aurrera euskera gain-gañean jartzeko, aberastutzeko. Ori —orduan bezela— Agirre'ren lendakaritzak iraun zuan urteetan. Eta berdin-berdin Agirre ill da gero.

Orrela helendarren denbora zarretako jakituri eta eder-lanak euskeraz jartzen jarraitu zan sendo-sendo. Onela ere neri bere izena bear zan bezela agiriyan atera bearra gertatu zitzaidan sei urtez aurrerago.

Paris'en negoan orduan eta ango *Euzko-Deya*-n askotan, idatzi bearrean aurkitzen nitzan, angotarrak gure goraberak ezagutzeko bidean jarri-nayaz.

Maiz samar euzkotarren aro zarretako zeregiñak adierazteko; bestetan, azken —egunetakoak— zeatz neurtuz oyeke ere bear bezela zabaltzeko. Gai nagusia izergatik Bidasoa'ren iparraldera etortzen dira egoaldekoak igesi? izaten zan.

Erantzuna, France'ko agintaritzarentzat, izparkarientzat, elizgizon edo elizta-rrentzat, nolanaiko joera zutenentzat, aitatu bearrekoa zan. Baita ere, España'ren lurretan edo lurrekoekin aberats-atzeaurrerik zutenei edo Amerika-aldetan, Mexiko'tik guztiz egoalderaño egoki zabaldu bearrekoa.

1962'garren urtean, ba, irakasle eta jakin-zale guziei zuzenduaz Zaitegi'ren ize-nak bere lekua an zeukala buratu zitzaidan. Eta orrengatik *Euzko-Deya*artan —bi zatitan—, nere lan batek gai au zabaldu zuan: "1962'g. urtea, gain-gañeko urtea euskaldunetan, Filosofia'ri buruz".

Lau euskaldun-jakile'ren izenak ekartzen nituan, urte artan oso ezagugarri ziran gutunak argitaratu zituztelako.

Abek ziran: *Sobre la esencia*, Zubiri'tar X'ek egiña; *Totalitarismo y egolatría*, R. de Yurre'rena; *Jaungoikoa*, A. Villasante'rena eta *Platon'en atarian*, Zaitegik egingakoa.

Bat batean, euzkotarrak yakintza'ren bidetan ari ta ari zirala egun txar ayetan ere; bestetik, yakintza'ren bidetan euskeraz ere lanak egitea eta gai sakonetan ari iza-teta etzala iñolaz eziñezkoa. Oyek ziran zabaldu nai nituan otsak, adierazkin edo adie-

Artuemanetzaz itz egitera etorriya naiz; egi-egitan nik Zaitegi'ri emandakoak beragandik artutakoen aldean urriyagoak izan zirala aitortu bearrean nago.

Ark neri gogo zuzen, eraginkor baten irudi ederra ematen zidan. [¶]Aldetara begiratu gabe, aurrera egin dezagun!" "itz-ots'etan ez, ezpañetatik ez, egiten zuana eredutzat arturik aurrean neukan, beste akullurik etzan bear.

Egiya da nere bizkarren gañean zuek dakizuten zeregiña jarri zidaten ezkeroztik arekin artueman gutxiago izan nituala. Baño, orduan ere Zaitegi borondate oneko, borondate aundiko aurkitzen nuan.

Egiñ zituen lanen artean, eskatu gabeko bat ere bialdu zidan: Bilbao'n agertu izan genduan *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa*-gandik itz eta esaera guziyak —erderaz eta euskeraz— iztegi baterako bezela jarriyak. "Agrupación socialista: Gizartezale batza" da lenengoa eta, "Zonas bancarias: diru-etxe barrutiak" azkenetako bat.

Bi millatik gora uste det Zaitegi'ren ortan biltzen dirala. Emen idazten ari naizenari dagokionez, ona ango itzultze bat: "Relaciones tributarias: zerga artuemanak". Beste lekuan "Relación: izendia", dakar.

Esaera eta itz ugari oyek jasotzearekin Zaitegi'k guk Bilbo'n atera genduan *Agintaritzaren Egunerokoa* euskeraren gayetan ezagungarri bezela artzen zuala adierazi nai izan zuan.

Nik orain ango itzultzalleen izenean eta nerean eskerrak ematen dizkiot omenez.

IOKIN ZAITEGI EUSKAL LITERATURAN

Arrasate, 1981-XII-30

Juan San Martin

Idazlerik gehienek bezala, zenbait ikuspegi ditu Iokin Zaitegi zenak ere. Olerkari, klasiko itzultzaile, pentsatzaile, hizkuntz ideologo, ... Baina, bereziki, egile eta eragile.

Beraren herrienganako kontzientzia hartu zuen une beretik bihurtu zen Zaitegi egile eta eragile. Beraren lehen ekarpen eta eskaintza izan zen "Tori nire edontzia" (1934) zeritzan olerkia. Berekiko izan zituen eta gainditu zituen ideien borrokatik egosia eta, barne-gogoz, gure herriaren erroetatik guztiok edan dezagun eskainia. Euskaraz idazten hasi zen egun hura, beraren bizitzako egunik aipagarrientzat aitortuko zigun denborarekin. Egun hori, ordea, euskal literaturarentzat ere zoriontsua izan zen. Handik "Euskal-Ikurriñari" artean (1961) beraren sentipenik sakonenak agertuko zituen olerki bidez, bi liburutan bilduak daudenez: *Goldaketan* (1946) eta *Berriz ere goldaketan* (1962).

Euskaltzale ideiak berriz, berak sortutako *Euzko-gogoa* (1950-1959) aldizkarietako atarikoetan agertu zituen. Kartsuki agertu ere, erdaraz aritzen ziren euskalarien aurka ere bai, eta hemendik sortu zitzaizkion zenbait haserrez gainera etsaiak ere. Hizkuntzaren geroan zuen mina eta, oso osoan, buru belarri eskaini zen euskararen alderako lanetan. Hortarako erabaki gogorrek hartu beharrean aurkitu zen. Garai hartako Josulagunen giroa hertsiegia zitzaion eta ordena utziaz, baina apaizgoan jarraituz, bete zituen bere lanak, neke guztien aurrean ausart; baina, fedez, sendo.

Euskaragatik inork ezer espero etzuen garaian, kultur aldizkari bat sortu euskarara hutesz Guatemalako puntan eta era guzietako euskaltzaleak laguntzaile hartu. Ezker edo ezker joerako askok ere han idatzi genuen lehen aldiz. Iokinek inorentzat etzuen eragozpenik euskaltzaletasunez eta errespetuz ihardutzen bazen. Gizon zabala zen ulermenez. Haren izakera eta eraginari esker mugitu zen gerra ondorengo euskal literaturaren lehen ekintza eta berari zor diogu gehienbat ondoko zuzpertzeara.

Euskararentzat alor berriak urratu zituen, aldizkariakin ez ezik baita greziar klasiko zaharrak itzuliz ere. Bere olerki batean aitortzen zuen bezala:

*Ibilgabeagoan egin nun indarra;
nire bizitzan ori dut alde bakarra.*

Etorkizunean zuen kezka eta etorkizunez urduri heldu zion Europa zaharreko elitearen lanak itzultzeari, euskaldunok haien senez hobeto jabetzeko eta goi mailako pentsaerak erabiltzeaz euskara bera landuagotzeko: Sopokel, Euripide, Platon euskaratuz.

Zama ederra leporatu zuen Zaitegi zenak gai sakonok lagun Unibertsitate eta gainerako eskola nagusiak goi mailetako materia izan zezaten. Herri batek orotarik behar duenez eta berak hartu zuen zama hori eroateko gai zenez, ahalmenaren arabera eskaini zituen beraren zituak. Zitu estimagarriak hizkuntzak bere goiak hartuko baditu.

Bere lan guzior berri eman nuen hilberrikoan. Ikus *Euskera* (XXIV, 1979, 847 orr.) aldizkarian.

Bi urte t'erdi dira hil zela, hirurogeita hamaika urte doi doi zituela. Egun oroitaroz, lasai esan genezake Euskal historian euskaragatik beste inork ez duela eman hark haina. Ondasuna ez ezik, osasuna ere eman zuenez.

Gure gorazarreak ondo mereziak zituen eta orainarteko gorazarrerik handiena Jose Mari Velez de Mendizabalek eskaini dion biografiako liburua izan da. Beraren bizitza xehetasunez aztertzen du eta haren lan eta nekeen berriak erarik egokienean jaso, gure historian tokia izan dezan. Merezi ere, ez da nolana hiko tokia Iokin Zaitegi zenak merezi duena. Holako liburuek, maizegi, laudorio hutsetan erortzeko arriskuo izaten dute, baina Velez de Mendizabalek jakin du gizon maitagarri baten izatez behar diren neurri eta mugak gordetzen. Irakurtzen duten askorentzat, Zaitegi zena, gizon kaskagogorra izaki; baina hala behar historiako unerik txarrenetan beragan hartu zuen zama hartzeko. Holako batzuri eskerrak gara gaur garena. Nekea ugari eta laguntzarik urri izan zuen Zaitegik bere denboran. Guztia Euskal Herriari eskaini zion, euskarari oinarriturik. Herri xeheak nekez ulertuko badu ere, haren lan mami-tsua eskergarria izan zen. Adibiderik badugu, baldin non ikasia jakin nahi badugu.

Liburu garrantzitsua Velez de Mendizabalek eskaintzen diguna. Zaitegiren bizitza ta lanak ez ezik, gerraurreko eta gerraondoko idazleen belaunaldiak ikertzeko ere lagunduko digunez, edonorentzat irakurgarri eta jakingarri delako.

IOKIN ZAITEGI

Arrasate, 1981-XII-30

José M.^a Velez de Mendizabal

“Herri bezala nahi baldin badugu iraun,
euskara garbia, nahiz euskara jatorra,
nahiz euskara zatarra... nahi duzuna,
BAINA EUSKARAZ.”

Iokinen hitzak dira. Duela sei urte berarekin izan nuen elkar hizketa batetik aterata. Eta hitz hoietan Zaitegiren filosofiak nondik jotzen zuen argi eta garbi iger dai-tekeela uste dut.

Euskara izan du ardatz bere bizitza osoan eta euskara barneko filosofiaren ibil-gailu bihurtu zuen, euskal gizarteari ama-hizkuntzan aurreratutako aukerarik eskaini nahiz ziolarik.

* * *

Iokin Arrasateko semerik haundienetako bat dugu. Eta ez bakarrik, jakina, nik esaten dudalako. Ez. Arrasatek gizon haundiak eman ditu, euskal kulturaren arloan argi bereziz azaltzen direnak. Horra hor: Garibay, J. K. Gerra, Sebero Altube... Aurrerantzean Iokinen izena beste hoienei erantsi beharko zaie, Zaitegik Euskal Herriaren alde egindako lan bikainak honela eskatzen baitu.

Eta Arrasateko historian ez ezik baita gure hizkuntzarenean ere urrezko hizkiz daude idatzita munduratar honen izen-deiturak. Arrasateko herriaren aintzarako.

* * *

Mutiko dela irten zen etxetik erlijios-bidea aukeratzen baitu. Urteak ematen ditu bere jaioterritik aldentua, baina Zaitegik ez du sekulan Udalaitzpeko txoko hau ahanzten. Bihotzean daroa beti hemen utzitako famili eta adixkideen oroitzapena.

1956.an lehen aldiz itzultzen da, Arrasaten geratzeko asmoz, baina orduko giro politikoak ez du Iokin bezalako gizakumerik onartzen. Eta ostera maletak egin behar-rean aurkitzen da. Beste hamasei urte joango zaizkio behin eta betiko amaren etxera iritsi arte:

“... Zorionez, zaartzaroan bada ere, etxeratu egin naiz.”

esaten digu Iokinek idazki batetan.

Eta ordurarte Arrasateko gehienontzat ezezaguna zen Zaitegi gizon bitxi bihur-tzen da. Non... eta bere jaioterrian. Bere adinekoek bistaz dakite zein den. Gerra

ondoren jaiotakoek, ordea, ez dute sekulan Iokinen gaineko zerik entzun. Banaka batzuek bakarrik eman dezakete Zaitegiren berri.

Zeinena ote da errua? Noski, herriarena ez. Hain zuzen ere, Zaitegik bere obra aurrera eramatean kontutan izan duen gizarteari, euskal gizarteari, begiak estali, belarriak itxi eta ahoa josi egin diote, euskal gizartea bera ezabatzeko amorru bizian zuzendutako erasoaldi baten bidez. Baina Zaitegiren lumak ez du mugarik ezagutzen eta-gaur hemen bihar han— gizarte horren gogoari—*eusko gogari*— eskaintzen dizkia une guztiak.

Normala da, beraz, oraindik ezpata gainean daukan Herriak Iokinen moduko gizonen berririk ez edukitzea. Gurea, *lo nuestro*, “En Calatañazor Almanzor perdió el tambor” gisako albiste garrantzitsuak; “... ya viene el cortejo, ya viene el cortejo, ya se oyen sus claros clarines, ...” eta honen antzeko poema “herrikoiak”; “las hordas rojas en un acto premeditado bombardean Guernica...” eta abar, eta abar zen. Hauxe genuen eguneroko ikasgaia. Eta ez dut ezer mairu eta Ruben Dario-ren aurka. Badaezpada ere...

Esaten nuen bezala, Iokin gizon bitxi bilakatzen da. “Filosofo haundia ei jok”, diote batzuek; “Etzekiat zer izango dan baina Mezak behintzat oso luzeak egiten dizkik”, Mezalaburzaleren batek; “Bada, entzun dutenez euskaraz oso ondo eskribitzen ei dau...” hirugarren batek.

Dena dela, bere burua era honetaz azaldu behar du Udaletxera, dirurik gehienak gatatuta, argitaratzeke zituen liburuak kaleratu ahal izateko, laguntza eske doalarik:

“Estornes Lasaren Literaturaren euskal enziklopediaren III eta IV liburutan nere lana aintzat artzen dute...”

* * *

Bi urte pasatu dira Iokin galdu genuenetik. Abuztuaren 17.an Donostiako Hospitalako gela batetan hil zen, euskal gizarteak ahazturik, bere aberriari bizitza osoa eskaini zion gizona.

Egun ilun hartarako “demokrazia” nolabait berreskuratuta genuen eta bihar-moneko egunkariak arrasatearraren heriotzaz berri ematen zuten, zenduaren bizitzari buruzko zenbait xehetasun zekartelarik. Hauexek izango ziren, ziurtasun osoaz, askok eta askok Iokinen gain irakurritako lehen albisteak.

“Mira; ayer murió *un cura* de 73 años, que tradujo al euskera obras de Platón... También dice que fundó una revista euskaldun en Guatemala... y que en su tiempo hizo poesía... ¡Qué tipo más curioso!...”

esango zion batek baino gehiagok goiz hartan bere emazteari, gosaltzen ari zirela egunkariak zekarrena irakurri ondoren.

* * *

Azkenengo bi urteotan batzu izan dira Zaitegiren irudi eta lana euskaldunen artean ezagutarazteko egindako saioak. Hitzaldi, mahai borobil, prentsako artikulak eta abar. Eta, zer esanik ez, ba goaz aurreratzen Iokinek amets egindako bidetik.

Euskal Unibertsitatea zuen harek helburu nagusia. Hori lortzeko gaurrengoko gaztediarengan zituen begiak jarrita, itxaropenezko sentimenduz beterik. Eta ez zebi-

lela oker uste dut. Pozgarri zait honako berri hau ematea: Dakidanez, Eskoriatzako Maixu Eskolan Zaitegik itzuli eta publikatutako Platon-en liburu bat darabilte irakurgai bezala. Lehen urratsa eman dute, beraz, Eskoriatzako ikasleek. Ez dut uste azkena izango denik. Haien ereduia laster hedatuko delakoan baitnago. Era honetaz ihar-dunez gero Euskal Herriaren oinarria indartzen eta sendotzen joango zaigu. Bihoa nere zorionik beroena Eskola horren arduradun eta ikasle gazteentzat.

* * *

Gaur aurkezten dugun liburu hau Zaitegi *gureago* egiteko bitarte egokia egin nahi nuke. Hauxe izan dut xedea beti, hots, arrasatearra euskaldun guztion ondarea bihurtzea. Unibertsala. Baina —apalagoak izan behar dugu eta— euskal zeruari dago-kion unibertsaltasunean.

Lehen esan dudan bezala Iokin arrasatear zintzo izan zen beti, nahiz eta bere jaioteritik milaka kilometrotara bizi izan behar. Zilegi bekit, beraz, mahai honetatik eskari pare bat Arrasateko herriari egitea, Zaitegiren mundrautartasun horren izenan hitzegiten dudalarik, hain zuzen ere:

a) Arrasateko Udala Zaitegiren biblioteka herrira ekartzeko asmotan dabilela ba dakit. Zenbait ahalegin egin da dagoeneko, behintzat, fruiturik gabe. Burokrazia halakoa da eta denok pasatu behar ei dugu ate hestu horretatik.

Zaitegik, ba dakizue, bere biblioteka Arrasateri eskaini zionean baldintza bakar bat ezarri zuen: taldekeriarik gabe guztiona litekeen Kultur Etxe bat eukitzea. Ni ezagutzen nautenek ba dakite nola pentsatzen dudan. Hain zuzen ere, edozein Kultur Etxe kulturak berak sortzen duela deritzat. Ez dut uste Zaitegik Kultur Etxerik behar izan zuenik bere inguru guztia kulturaz apaintzeko. Baina, dudarik ez, Etxe horrek kulturaren hedapenari lagundu diezaioke eta alde honetatik onuragarri bilakatzen zaigu eraikuntza.

Arrasateren moduko herri baten kultur kezka eta ekintzak bil litzakeen Erakunderik posible ote? Baietzkoan nago. Bertan, Zaitegiren liburuak ez ezik baita, esatera-ko, Gerrarenak ere batu ahal izango lirateke. Herriak erabili ahal izateko.

Honezaz gainera, Udaletxeko artxibategian diren liburu eta idazki zaharrekin sailkapen bereziak egin ahal izango lirateke (etnologia, linguistika...), Arrasateko kondaira hobeto ezagutzen joateko.

Ba du gure Udalak lanik non egiten. Bihar etziko belaunaldiek eskertuko dute gaurko gure abiadura.

b) Eta hauxe da nere bigarren eskaria: herrian sor daitekeen Kultur Etxe horri Iokin Zaitegiren izena ematea. Ondo merezia duela uste dut.

* * *

Amaitzeko, liburu honen aurkezpenean zuen presentzia eskertzen dudalarik, txaloaldi bat eskatuko nizueke Iokin Zaitegi zenaren omenez. Besterik ez.